

E K O N O M I

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

90 2003 APIRILA


- ✓ EKONOMI HAZKUNDEAK ESANGURATSUA IZATEN JARRAITZEN DU
- ✓ «KPI+2»: HELBURU BIDEZKOA ETA MARJINADUNA
- ✓ ESPAINIAR ESTATUKO LAN KOSTUA: EBeko AZKEN HIRUGARRENA
- ✓ NAFAR GOBERNUAK EZ DU ONARTZEN BERE PROPOSAMENAK LEGEBILTZARREAN EZ ONARTZERIK
- ✓ 55.442 ETORKIN HEGO EUSKAL HERRIAN, IA ERDIA ERREGULARIZATU GABE



ELAko Azterketa
Bulegoak egina

Hego Euskal Herriko (*) egoera ekonomikoaren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATA	AZKEN DATUA	AZKEN HILEE-TAKO JOERA	12 HILABETE LEHENAGO	2002
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA						
JARDUERA TASA	%	02 IV	69,06	MANTENDUA	66,45	69,06
EUROPAKO BATASUNeko "	%	2001	69	MANTENDUA	68,9	-
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	02 IV	1.129.400	JAITSIERA	1.102.500	1.129.400
ALOKAIRUPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	02 IV	896.100	JAITSIERA	867.600	896.100
ALDI BATERAKOTASUN TASA	%	02 IV	32,01	JAITSIERA	30,18	32,01
EUROPAKO BATASUNA	%	2001	13,2	-	-	-
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	02 IV	101.200	IGOERA	86.700	101.200
LANGABEZI TASA	%	02 IV	8,22	IGOERA	7,29	8,22
EUROPAKO BATASUNeko "	%	02 ABE	7,8	MANTENDUA	7,4	7,8
ELGeko "	%	02 ABE	7,1	JAITSIERA	6,9	7,1
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	02 IV	18,96	IGOERA	18,14	18,96
EUROPAKO BATASUNeko "	%	02 ABE	15,1	MANTENDUA	14,7	15,1
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	02 IV	11,54	MANTENDUA	11,1	11,54
EUROPAKO BATASUNeko "	%	02 ABE	8,8	MANTENDUA	8,5	8,8
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	03 URT-MAR	216.026	IGOERA	207.443	893.503
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	03 URT-MAR	20.039	JAITSIERA	20.176	78.751
ENPLEGU ERREGULAZIOA						
ONARTURIKO ESPEDIENTEAK	KOPURUA	02 URT-ABE	423	JAITSIERA	436	423
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	02 URT-ABE	8.130	JAITSIERA	10.188	8.130
LAN ISTRIPUAK						
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	02 URT-ABE	70.736	IGOERA	72.297	70.736
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	02 URT-ABE	923	IGOERA	908	923
ESKAINZA ETA ESKARIA						
PRODUKZIO INDUSTRIALA EAEn	% ALD.	03 URT-OTS	1,3	IGOERA	-0,2	-0,8
JARDUERA INDUSTRIALA NAFARROAn	% ALD.	02 URT-ABE	9,0	IGOERA	3,0	9,0
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%	03 I	80,4	MANTENDUA	-	82,1
BPGa EAEn	% ALD.	02 III	1,7	MANTENDUA	3	1,8
BEGa NAFARROAn	% ALD.	02 IV	3,1	IGOERA	2,2	2,8
BPGa ESTATUAN	% ALD.	02 IV	2,2	IGOERA	2,6	2,1
BPGa EUROPAKO BATASUNEAN	% ALD.	02 IV	1,4	IGOERA	0,7	1,4
PREZIOAK						
12 HILEETAKO KPIa ESTATUAN	%	MARTXOA 03	3,7	IGOERA	3,1	4
" EUROPAKO BATASUNEAN	%	OTSAILA 03	2,3	MANTENDUA	2,3	2,2
*Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da						
90. zbk. Egoeraren Azterketa 2003ko apirila						



Aurkibidea

SARRERA3

EGOERA EKONOMIKOARI

BURUZKO IRUZKINAK4

1. Ekonomiaren bilakaera Hego Euskal Herrian4
2. Hego Euskal Herriko ekonomia sektoreka4
3. Ekonomiaren hazkundera eta zor publikoa nazioartean5
4. Negoziazio Kolektiboa6
5. Ekonomiaren hazkunderetik harantz6

HIL HONETAKO

PUNTAKO GAIK8

1. Estatuko eta Europako lan-kostuak7
2. PFEZaren erreformak ez du bozketarik gairitu7
3. Inmigrazioa: errealitate hazkorra8

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

E K O N O M I

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Aurreko urteko KPIa gehi 2 puntu" tako gure helburua, Hego Euskal Herriko ekonomian marjina duen helburua dela baieztatuko dugu Egoeraren Azterketaren zenbaki honetan, nahiz eta beste iturri batzuek ezkorrak eta kontrajarriak diren seinaleak eman. Hori dela eta, negoziazio kolektiboaren bidez, ez dugu utzi behar langileriak Hego Euskal Herrian sortzen den aberastasunean partaide-tza galtzen jarraitzerik. EBeko estatuen lan kostuak aztertuko ditugu puntako gaien artean. PFEZaren jaitzieraren proposamenari dagokionez nafar Gobernuak erakutsitako demokrazi faltazko joera ere ikertuko dugu. Azkenik, Hego Euskal Herriko etorkinen azken datuak aztertuko ditugu, eta baita gai honetan espainiar gobernuak duen jokabidea ere.

** Txosten hau 2003.eko apirilaren 11an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da.*

Egoera ekonomikoari buruzko iruzkinak

2003ko negoziazio kolektiboaren prozesuko gorenetakoa unean gaude. Hori dela eta, arretaz aztertu behar dugu Hego Euskal Herriko ekonomiaren bilakaera, gure negoziazio-aukeren isla diren oraingo inguruabarrei neurria hartzeko.

1. Ekonomiaren bilakaera Hego Euskal Herrian

2000ren hasieratik hona, behin eta berriz entzun ditugu ekonomiaren bilakaeraren inguruko alar-mak. Batek baino gehiagok krisia ere aipatzen du. Baina, esan daiteke krisia dagoela, ekonomiek oraingo erritmoan hazten segitzen dutelarik? Egia da ekonomiaren oraingo hazkunde-tasak orain artekoak baino txikiagoak direna, baina, hala ere, datuek erakusten dutenez, hazkunde erreala esanguratsua da.

Dirudenez, EAEn, desazelerazioranzko joera bukatu da dagoeneko, hiruhileko hazkunde-tasa ia bere horretan mantendu baita 2002ko lehenengo hiru hiruhilekoetan zehar, aurreko aldieta-ko beheranzko joera argia hautsiz. BPGaren urte-arte-ko hazkunde-tasa, zehazki, %1,9koa izan zen 2002ko lehenengo hiruhilekoan, %1,8koa bigarreanean, eta %1,7koa hirugarreanean.

Eusko Jaurkitzearen aurreikuspenen arabera, EAeko ekonomiaren hazkundeak %1,8koa izango da 2002rako eta %2,2koa 2003rako. Horrek erakusten duenez, aurreikuspenen arabera, EAeko ekonomiaren moteltzea amaitzeaz dago. Hala ere, ez dugu ahaztu behar instituzioek aurreikuspen baikorrak egin ohi dituztela eta, askotan, gero ez direla betetzen.


Gainera, Produkzio Industrialaren Indizeak %1,3ko igoera izan zuen 2003ko urtarril eta otsail artean, 2002ko lehenengo bi hilekin konparatuta; beraz, joera-aldaketa nabaria dagoela pentsa dezakegu. Duela urtebete, adierazle hori %0,2 jaitsi zen.

Nafarroaren egoera onuragarriagoa da. 2001en amaierara arte, Nafarroako ekonomiaren urte-arte-ko hazkunde-tasa jaitsiz aritu izan den arren, 2002ko datuek erakusten dutenez, hiruhileko hiruhileko, Nafarroako ekonomiak Balio Erantsi Gordinaren (BEGaren) urte-arte-ko igoerak izan

ditu. Zehazki, 2002ko lehenengo hiruhilekoan, %2,6 hazi zen 2001eko epealdi beraren aldean, %2,7 bigarren hiruhilekoan, %2,9 hirugarreanean, eta %3,1 laugarreanean. Hortaz, Nafarroako ekonomiak %2,8ko hazkundeaz itxi zuen 2002ko ekitaldia, hau da, 2001eko hazkunde berberaz.

Nafarroako Jarduera Industrialaren Indizeak, bestalde, %9ko igoera izan zuen 2002an zehar. Horrek hazkunde garrantzitsua erakusten du 2001eko ekitaldiarekiko, urte horretan indizea %3 igo zen eta.

EAeko BPGAREN ETA NAFARROAKO BPGAREN HIRUHILEROKO ALDAKUNTZA. 2000-2002 (aurreko ekitaldiko hiruhileko berarekiko izandako % aldakuntza)




Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

2. Hego Euskal Herriko ekonomia sektoreka

Atal honetan, sektorez sektore aztertuko ditugu gure ekonomien egoera eta bilakaera.

a) EAeko ekonomia

Industria sektorea %1,2 hazi zen 2002ko lehenengo hiruhilekoan, %0,9 bigarreanean, eta %1 hirugarreanean; beraz, sektore hori BPGaren hazkunde-tasa orokorraren azpitik hazi da 2002an zehar. Zerbitzuen sektorea (%2,1, %2 eta %1,7ko hazkundeak izan ditu, hurrenez hurren) ekonomia osoa baino pixka bat goragotik hazi da urtean zehar. Baina aipagarriena eraikuntza sektorea da, BPGa baino askoz gehiago hazi izan baita: %4,3,



%4,3 eta %4,6, hurrenez hurren, ekonomia orokorraren bikoitza baino gehiago, alegia.

BPGAREN URTEARTEKO ALDAKUNTZA TASAK SEKTOREZ SEKTORE. EAE, 2001-02

	2001		2002		
	III	IV	I	II	III
NEKAZARITZA-ARRANTZA	-	-	-	-	-
INDUSTRIA	3,3	1,7	1,2	0,9	1,0
ERAIKUNTZA	5,1	4,3	4,3	4,3	4,6
ZERBITZUAK	2,4	2,2	2,1	2,0	1,7
EKOIZPEN GAINEN ZERGA GARB	-	-	-	-	-
BPG (merkatu preziotan)	3	2,1	1,9	1,8	1,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza eta Eustat

b) Nafarroako ekonomia

Nafarroan, nekazaritza, abelazkuntza eta basozaintza sektorea eta, batez ere, industria sektorea guztien batez bestekoaren azpitik hazi ziren 2002an zehar; industria sektorea ekonomia osoaren hazkundearen erdira ere ez zen iritsi. Hala ere, bi sektore horiek 2001ean baino hazkunde handiagoa izan dute. Eraikuntza eta zerbitzuen sektorea ekonomia osoaren gaintetik hazi ziren 2002an zehar, baina, EAEn ez bezala, zerbitzuen sektorearen hazkundera eraikuntza sektorearena baino handiagoa izan zen, 2001an ez bezala.

BEGAREN URTEARTEKO ALDAKUNTZA TASAK SEKTOREZ SEKTORE. NAFARROA, 2001-02

	2001					2002				
	1	2	3	4	Año	1	2	3	4	Est. Año
NEKAZ.ABELAZK. BASOZ.	-0,8	-3,2	-3,8	-2,5	-2,6	0,7	1,3	1,9	1,9	1,4
INDUSTRIA ADARRAK	1,8	0,8	0,2	-0,3	0,6	0,4	1,0	1,6	1,9	1,2
ERAIKUNTZA	5,3	5,7	4,8	3,2	4,7	3,1	2,8	2,9	3,1	3
ZERBITZUAK	4,6	4,3	4,1	4,0	4,2	4,0	3,9	3,8	3,8	3,9
GUZTIRA	3,4	2,9	2,5	2,2	2,8	2,6	2,7	2,9	3,1	2,8

Iturria: Instituto de Estadística de Navarra

2002an, zerbitzuen sektoreak egin zion ekarpenik handiena Nafarroako ekonomiaren hazkundeari (adierazle horretan, sektorearen hazkundeak eta sektoreak ekonomia osoan duen pisuak dute eragina). Nafarroako BEGak izandako %2,8ko haz-

kunde osotik, %2,1 zerbitzuen sektorearen esku-tik etorri zen (hortik, %1,9 merkatuko zerbitzuei dagokie, eta %0,2, merkatukoak ez diren zerbitzuei). Industria sektorea izan zen Nafarroako ekonomian bigarren ekarpenik garrantzitsua suposatuz (zuena (%0,4), eta, horren atzetik, eraikuntza (%0,2) eta nekazaritza, abelazkuntza eta basozaintza sektorea (%0,1).

JARDUERA ADARREK HAZKUNDE OSOARI EGINDAKO EKARPENA. NAFARROA 2002

	2002
Nekazaritza, abelazkuntza eta basozaintza	0,1
Industri adarrak	0,4
Eraikuntza	0,2
Zerbitzuak	2,1
GUZTIRA	2,8

Iturria: Instituto de Estadística de Navarra

3. Ekonomiaren hazkundera eta zor publikoa nazioartean

Egoeraren Azterketaren aurreko zenbakietan, gure ekonomia Europako Batasuneko (EBko) ekonomien hazkunde orokorraren gaintetik hazten ari zela esan izan dugu. Berez, 15 estatu kideetako BPGaren urtearteko hazkundeen batez bestekoa %0,4koa izan zen 2002ko lehenengo hiruhilekoan, %0,8koa bigarrenean, %1,1ekoa hirugarrenean, eta %1,4koa laugarrenean.

Gure instituzioek ekonomia moteltzeak dakartzan "arazoak" zuzentzeko aukeratu duten jokatzea ere ez dator bat EB osoan erabakitzen ari direnekin. Eurostatek argitaratutako azken informazioaren arabera, 2002an, EBko batez besteko defizit publikoa BPGaren %1,9koa izan zen (Frantzia %3,1ekoa eta Alemanian %3,6koa). 2002an bertan, EAEn BPGaren %0,11ko superabita izan zuen, eta Nafarroak, BEGaren %0,14koa. Hau da, ekonomia "ahul" ageri den egoera honetan, EBko gastu publikoa areagotu eta, horrela, ekonomia pizteko joera aukeratzeko duelarik, Hego Euskal Herriko instituzioak eskuliburu neoliberalik ortodoxoenei jarraitzen zaizkie, eta superabitaz ixten dituzte ekitaldiak. Era honetara, zero defizita lortzeko helburuari lehentasun handiagoa ematen diote behar besteko gastu soziala egi-

teari edo ekonomia suspertzeari baino. Horrekin batera, PFEZren inguruan onartu berri diren erformen funtsa presio fiskalaren murrizpena izan dela kontuan hartuta, agerian geratzen da gastu publikoa ere murrizteko joera.

Etorkizun hurbilerako iguripenek ere joera bera erakusten dute. Izan ere, EBn Egonkortasun Itunean defizit publikorako ezarritako mugak zalantzan jartzen ari dira, eta aurrekontu-oreka 2006ra arte atzeratzea planteatzen ari da. Gure instituzioen jarrera, aldiz, oso bestelakoa da. Eusko Jaurlaritzak 2003rako aurreikusten duen defizita ia nulua da (BPGaren %0,0005ekoa, hain zuzen ere), baina 2003rako aurrekontuei buruzko azterlanean esan genuenez, gure aurreikuspenen arabera, EAEk superabitaz itxiko du 2003ko ekitaldia ere. Bestalde, Nafarroako aurrekontuetan, oreka zor publikorik jaulki gabe lortu nahi dela adierazten da berariaz, 2003rako aurrekontuetan islatutako gastuen eta estimatutako sarreren zenbatekoak berdinak direlako, zor publikoaren beharrik gabe.

4. Negoziazio Kolektiboa

Orain arte aztertutakoan oinarrituz, Hego Euskal Herriko ekonomiak hazten segitzen duela ondoriozta daiteke. Eta EBko gainerako ekonomien batez besteko hazkundearen gainetik hazten ari da, gainera.

Ekonomiak 1993tik hona igaro duen hedapenaldia aztertzen badugu, langileriaren egoerak okerrera egin du, sortutako aberastasunean duen partaidetzari dagokionez. Nafarroari buruzko informaziorik ez daukagun arren, Eustatek Kontu Ekonomikoei buruz argitaratutako datuek erakusten dutenez, EAEn, "Alokatuen ordainketa" 1993an BPGaren %55,4 izatetik 2001ean (urte horretakoa da azken datu ofiziala) BPGaren %49,3 izatera igaro zen; hau da, 6,1 puntutako jaitiera. Bestalde, "Ustiapeneko Soberakin Gordina" 1993an BPGaren %37,2 izatetik 2001ean %41,1 izatera igaro zen (3,9 puntuko igoera izan zuen).

Eustatek Industriaren eta Eraikuntzaren Kontuei buruz emandako informazioak ere gauza bera erakusten du. Pertsonal-gastuak/produktzioa

ratioa 1993an %24,77koa izatetik 2000n %16,08koa izatera pasatu zen; Mozkin gordina/produktzioa ratioak, aitzitik, 4,22 puntuko igoera izan zuen (1993ko %3,94tik 2000ko %8,16rako).

Ekonomiaren oparoaldian, sortutako aberastasunetik langileriari dagokion zatia txikiagotu egin bada ere, ekonomia moteltzeak, edo moteltzen ari dela sinestarazi nahiak, ez du arrazoi izan behar joerak bere horretan segitzea onar dezagun.


"Aurreko urteko KPIa gehi 2 puntu" lortzea bidezko helburua da, eta horretarako marjina egon badago: 2002ko hazkundea %1,8koa izan zen EAEn, eta %2,8koa Nafarroan.

5. Ekonomiaren hazkundetik harantz

Azterlan honetan, ekonomiaren bilakaerari begiratu diogu, negoziazio kolektiboan gure helburuak lortzeko marjina egon badagoela ziurtatzeko xedez.

Horregatik, zehaztasunez aztertu dugu ekonomiaren hazkundea. Hala ere, hazkunderen baina, nahiago genuke birbanaketaz mintzatu: lanaren birbanaketaz, erabateko enplegura heltzeko, eta aberastasunaren birbanaketaz, alegia.

Horrez gain, BPGaren hazkundea energiaren eta ondasunen kontsumoan eta hondakinen sorreran oinarritzen da, besteak beste, eta horiek ere aintzat hartu beharreko alderdiak dira. Ekonomiaren hazkunderari etengabe begiratzen dion pentsamoldea da nagusi, baina pentsatzen hasi beharko genuke irizpide horien arabera mugarik gabe haztea ezinezkoa dela eta garapen-ereduan, berandu izan baino lehen, aldaketa garrantzitsuak egin behar direla. Ingurumena gure eredu ekonomikoaren ondorioak nozitzen ari da dagoeneko. Sortutako aberastasuna birbanatzeaz mintzatzen garen bezala, ingurumena birbanatzeaz ere egin beharko genuke hitz, bai planetaren ikuspegitik, bai etorkizuneko belaunaldiak aintzat hartuz.



1

Estatuko eta Europako lan-kostuak

Eurostatek (Europako Estatistika Erakundeak) EBko lan-kostuen inguruko azken datuen berri eman zuen, martxoaren 9an argitaratutako prentsa-oharraren bidez. Datu horiek erakusten dutenez, 2000n, industrian eta zerbitzuetan, Espainiako estatuko lanorduaen kostua hirugarren txikiena zen EBko 13 estatu kidetako lan-kostuetarik (ez daukagu Belgika eta Italiari buruzko daturik). Lan-kosturik txikiena Portugalekoa izan zen, 8,13 €-koa, hain zuzen, eta atzetik Greziakoa eta Espainiakoa etorri ziren, 10,4 €-koa eta 14,22 €-koa, hurrenez hurren.

EBko batez besteko lan-kostua 22,7 €-koa izan zen; horren arabera, Espainiako estatuko lan-kostua batez bestekoa baino 8,5 € baxuagoa izan zen. Beraz, 2000n, Espainiako estatuko lanorduaen kostuaren eta Europako batez bestekoaren arteko aldea Portugaleko lanordu baten kostuaren –hau da, EBko lan-kosturik txikiaren– beste-koa zen.

Lanorduaen kosturik handienak Alemaniakoa (26,54€), Danimarkakoa (27,1€) eta Suediakoa (28,56€) dira. Hortaz, 2000n, Espainiako estatua- ren eta Suediaren (lan-kosturik handienekoa) arteko diferentzia 14,3€-koa zen; edo, bestela esateko, Suediako lanorduaen kostua Espainiako estatukoaren bikoitza zen.

Lan-kostu horren zatirik handiena soldatak eta alokairuak ordaintzeko erabiltzen da; beste zati bat gizarte segurantzarako ekarpenek hartzen dute; eta azken zatia prestakuntza, lanerako arropa eta bestelako gastuak ordaintzeko baliatzen da.

Espainiako estatuan, soldata eta alokairuei dagokien ehunekoa (%74,5) EBkoei batez beste dagokiena (%75,7) baino txikixeagoa da. Horrek erakusten duenez, batez besteko soldata edo alokairua 17,18€-koa da EBn, Espainiako estatuan, berriz, 10,59€-koa delarik, hau da, 6,6€ txikiagoa.

Bestalde, Espainiako estatuan, %24,4 bideratzen da gizarte segurantzara; EBn, aldiz, batez beste %21,5 gastatzen da horretan. Datu hori eurotan adieraziz, EBn, gizarte segurantzara 4,8€ zuzentzen dira, batez beste, lanorduko, Espainiako estatuan, kontzeptu horretan, 3,47€ (1,3€ gutxiago) gastatzen direlarik.

LANORDUAEN KOSTUA ETA LAN-KOSTU OSOAREN EGITURA INDUSTRIAN ETA ZERBITZUETAN, 2000

	Orduko lan kostuak (€)	Soldata eta alokairuak(€)	Gizarte Segur. (€)	Beste (€)
PORTUGAL	8,13	6,49	1,57	0,07
GREZIA	10,4	7,71	2,65	0,04
ESPAINIA	14,22	10,59	3,47	0,16
IRLANDA	17,34	14,74	2,15	0,45
FINLANDIA	22,13	17,22	4,54	0,38
EB (15)	22,7	17,18	4,88	0,64
HOLANDA	22,99	17,93	4,69	0,37
AUSTRIA	23,6	17,02	5,59	0,99
ERRESUMA BAT.	23,85	19,44	3,72	0,69
LUXENBURGO	24,23	20,40	3,44	0,39
FRANTZIA	24,39	16,61	6,76	1,05
ALEMANIA	26,54	20,01	6,00	0,56
DANIMARKA	27,1	23,77	2,17	1,17
SUEDIA	28,56	18,99	8,45	1,11

Iturria: Eurostat

2

PFEZaren erreformak ez du bozketarik gainditu

Nafarroako Gobernuak planteatutako zerga-erreformaren neurrik garrantzitsuena PFEZaren tasa marjinalaren murrizpena zen; erreforma honek ordea, ez zuen Legebiltzarreko izapidea gainditu, martxoaren hasierako bilkuran.

Hala ere, dirudienez, Foru Erkidegoko Gobernuak ez dago batere pozik, bere proposamenak ez delako behar beste boto bildu Legebiltzarrean, eta ez dago prest bere proposamena baztertzeko. Izan ere, apiriletik aurrera, arbuiatu den erreforman PFEZari buruz planteatutako atxikipen-taula aplikatzeko aukera eskaintzen du Gobernuak, eta hala egin nahi duen eta bere enpresari jakinarazten dion orok erabili ahal izango du aukera hori. Oraindik onartu ez den tarifa txikiago hori aplikatzea erabakitzen duten pertsonak 2004ko aitopenean itzuli beharko dute 2003ko apiriletik abendura bitarte ordaintzeke utzi zuten zenbatekoa, betiere arbuiatutako erreforma Legebiltzar berriak onartzen ez badu.

Foru Gobernuak eskaintzen duen aukera horren atzean, bere proposamenak aurrera eramateko asmo irmoa dago, Legebiltzarreko gehiengoak kontra egon arren. Horrek, gure iritziz, agerian uzten du Gobernuak demokraziaz duen iritzia. Gobernuak eskaintzen duen murrizpen-aukera

hori, oraingoz, itxurazko aukera bada ere, orainxe hasita gutxiago ordaindu ahal izateko tentazioa beti "erakargarria" izaten denez, jende nahikotxok heldu ahal dio irtenbide horri. Ez dago inolako arrazoirik Legebiltzarraren jarrera aldatu egingo dela pentsatzeko, Legebiltzarraren osaera aldatzen ez bada, behintzat. Beraz, pentsa dezakegu Gobernuak, aukera hori eskaintzean, murrizpen-aukeraren inguruko auziak hauteskundeetan izan dezakeen eragina duela gogoan. Gainera, jokabide horren xedea zuzeneko zergen murrizpenaren aldeko ideologia neoliberala areago zabaltzea da, murrizpen hori onartuko ez balitz, 2003ko apiriletik aurrera aplikatzea erabakitzen duten zergadunak PFEZ zuzeneko zerga ez murriztearen kontra azalduko lirakeelakoan.

Hala ere, gogora dezagun honakoa:

(1) Nafarroako Gobernuak PFEZren tarifyan proposatutako murrizpena errentarik handienak dauzkaten kolektiboetara suertatzen zaie bereziki onuragarri, baina ez dakarkie inolako abantailarik gutxienezko oinarrira ez iristeagatik aitortpenik egiten ez dutenei.

(2) PFEZaren tasa murrizteak zergen bidez diru gutxiago biltzea dakar, eta, ondorioz, gastu soziala ere urritu egiten da. Horrek diru-sarrerarik txikiak dituzten kolektiboetara egiten die kalterik handiena.

(3) Orain arte zergen arloan aplikatzen ari den politikak zuzeneko zergak murrizteko eta zeharkakoak handitzeko joera erakusten du, hau da, gizartearen ikuspuntutik onuragarria litzatekeenaren kontrako joera, hain zuzen ere.

Ondorioz, Nafarroako Gobernuak PFEZren tasa marjinala murrizteko eskaintzen duen itxurazko aukera hori erabat arbuigarria da, esan den bezala, hauteskundeetan etekina lortzeko pentsatua izateaz gain, demokraziaren eta gizartearen kontra jotzen duelako.

3 Inmigrazioa: errealitate hazkorra

INE eta Barne Ministerioaren informazioen arabera, Espainiako gobernuak estatuan legezko agiriarik gabe bizi den etorkin kopuruaren gutxi gorabeherako estimazioa egin du lehenbizikoz, informazio hori guztiz fidagarria ez bada ere. Etorkin biztanleri guztiaren (INEren errolda ofizialaren arabera) eta legezko egoeran dauden etorki-

nen(Barne Ministerioaren datuak) arteko aldea litzateke erroldan ageri ez diren etorkinei –"paperik" gabekoei– legokiekeena.

Informazio horren arabera, 2001ean, Hego Euskal Herrian, 55.442 etorkin zeuden, eta horietatik 29.075ek bakarrik zeuzkaten beharrezko agiriak, 26.367 euren egoera legeztatu barik zeudelarik. Horren arabera, etorkin biztanleriaren ia erdiak paperik gabe daude.

Nafarroako kasua bereziki deigarria da, izan ere, Hego Euskal Herriko etorkinetatik %43,8ren bizilekua den lurralde honetan, legezko agiria ez dutenak %60,6 dira eta.

ETORKIN KOPURUA HEGO EUSKAL HERRIAN. 2001

	EAE	NAFARROA	H. EUSKAL HERRIA
INEren erroldaren arab.	31.168	24.274	55.442
Barne Minister. arabera	19.515	9.560	29.075
Agiriarik gabekoak	11.653	14.714	26.367

Fuente: INE eta Barne Ministerioa

Etorkinek jasan behar dituzten bizi zein lan-baldintzak ondo ezagutzen ditugu guztiok. Gure instituzioek, enpresek eta gizarteak, oro har, oso-oso laguntza urria ematen diete, eta arazoa nabarmenki larriagotzen da euren egoera legeztatu barik duten biztanleen kasuan.

Espainiako gobernuak amaitutzat eman zuen etorkin gehiagoren egoera legeztatzekeo prozesua, eta horrela, itxi egin zuen Espainiako estatuan bizi diren etorkinek araz bizitzeko zeukaten bide bakarra. Beraz, agiri egokiak dauzkaten kopurua murriztea lortu du, ez, ordea, paperik ez daukatenen kolektiboa, horrek etengabe hazten segitzen du eta.

Espainiako gobernuak inmigrazio arazoei emandako erantzuna ez da, inondik ere, egokia, "Ley de Extranjería" delakoaz eta horren modukoez, biztanle horien eskubideak murriztu besterik ez baitu egiten, etorkinok beharrak bultzatuta datozela kontuan hartu gabe. "Ley de Extranjería"ri forma eman behar omen dion araudia legea bera baino txarragoa da; izan ere, Legearen edukia garatzera mugatu beharrean, azkendu egiten du lana, "Ley de Extranjería"k etorkinen eskubide edo interesei buruz aipatzen ez zituen murrizpenak jasoz. Horregatik, Auzitegi Gorenak baliorik gabe utzi ditu araudi horren alderdi asko. Bien bitartean, PPko gobernuak bere politika ez aldatzeko eta legean arbuaiatutako artikuluak sartzeko asmoa iragarri du.

Beraz, etorkin kopuruak gorantz segitzen du, inmigrazio politikak gero eta murriztaileagoak direlarik.